

PERTSONA KOOPERATIBOA PROFILA IKASLE GAZTEETAN NEURTZEKO KOOPHEZI TRESNAREN SORKUNTZA ETA BALIOZTATZEA

Tesiaren egilea: Oxel Azkarate Iturbe

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila: Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntza Inklusiboan

Tesi-zuzendaria: Jose Ramon Vitoria Gallastegi eta Aitor Aritzeta Galan

Tesiaren laburpena:

Doktorego-tesiaren helburu nagusia izan da Pertsona Kooperatiboa (PK) profila ikasle gazteetan neurtzeko tresna fidagarria sortzea eta balioztatzea Batxilergorako, Lanbide Heziketarako eta Unibertsitateko Graduetarako (16-22 urte).

Hezkuntza-berrikuntza prozesuetan identifikatu da eraldaketa sozialerako PK profila garatzeko beharra; eta, ondorioz, berau definitzekoa, ezaugarritzekoa eta neurtzekoa —ebaluatzekoa—. PK kontzeptu berria ez den arren, egindako literatura-errebisioan ez da aurkitu frogatutako teoriarik, ezta profilaren neurketarako tresnarik ere. Hori dela eta, Teoria Funtzaturik (Grounded Theory) ikerketa metodo kualitatiboaren urratsei jarraituta eraiki dira PK profilaren definizioa eta ezaugarritzea, hezkuntza-ikuspegi batetik. Prozedura horrek ahalbideratu du PK profilaren neurketarako —eta beronen garapenerako— garrantzitsuak diren aldagaiak identifikatzea.

Lortutako emaitza horietatik abiatuta, gaiarekin lotura duten ekarpen teorikoekin eta enpirikoekin jorratzen da KOOPHEZI-i tresnaren marko teoriko orokorra: balioen, jarreraren eta konpetentzien ikuspegiaren lanketa egin da. Jarraian, proba psikometrikoen sorkuntzarako nazioartean ezarrita dauden eredu estandarrak adierazten dituzten irizpideak eta urratsak kontuan hartuta sortu eta balioztatu da KOOPHEZI-i tresna. Eraiki eta landutako oinarri teoriko horiek guztiak aintzat hartuta, diziplina desberdinetako zortzi ikerlarirekin etengabeko kontrastean aukeratu dira tresna ezaugarritu duten aldagaiak.

Ondorioz, KOOPHEZI-i ikasleen PK profila neurtzen duen tresna fidagarria balioztatu da. Tresna multidimentsional horrek 3 dimentsio orokorretan (PK, IND, KOL) 17 faktore biltzen ditu. 10 faktorek noranzko positiboan neurtzen dute PK (auto-efikazia, moral barneratua, beharizan kognitiboa, helburuen interdependentzia, enpatia kognitiboa, komunikazio asertiboa, justizia soziala, onginahia, ekintzaile soziala eta gizakiaren ikuspegi positiboa). Gainerako 7 faktoreek PK aurkako noranzkoan aztertzen dute. 4 faktorek (idiozentrismoa, nartzisismoa, berekoitasuna eta gizakiaren ikuspegi negatiboa) individualismoa (IND) neurtzen dute eta beste

3 faktorek (gatazkak ekiditea, identitate soziala eta talde-eragina) kolektibismoa (KOL). Tresnak 65 item ditu eta 6 puntuko Likert eskalaren (1 = erabat desados, 6 = erabat ados) bidez jasotzen ditu ikasleen hautemateak. KOOPHEZI-i tresnak baliozkotasun-maila egokiak ditu: 17 faktoreen soluzio faktorialak bariantzaren % 63,41 azaltzen du eta itemen pisu faktorialak .562 eta .852 artekoak dira. Hurrengo hau da item adibide bat: «Gustuko dut gizartearentzat onurak izango dituzten proiektu berriak hastea». Tresnaren erabilerak posible egiten du hezkuntza-eskaintzek PK profilean sortzen dituzten eraginak aztertzea, ikasleen hautemateetatik abiatuta.